

ELTXO TIGREA

(Aedes Albopictus)



Zer da?

Asiatik etorritako eltxo inbaditzailea da, munduan barna hedatu eta hedatu ari dena. Espainiar estatuan 2004an identifikatu zen lehenbiziko aldiz eta orduz gero hedatzen joan da. Nafarroan 2018an identifikatu zen.


Eltxo beltz bat da, arrasto zuria du burutik toraxera, eta pintta zuria hanketan eta sabelaldean.

Batez ere hiri eta herrietan bizitzen da, gehienetan egunez egoten da aktibo, eta toki ilunetan ezkutatzen da.

Haren ziztadek ezongia sortzen dute, mingarriak izaten ahal direlako eta erreakzio alergikoa eragiten ahal dutelako.


Eritasun batzuk transmititzen ahal dizkigute, hala nola dengea, chikungunya edo zika. Probabilitatea hagitz txikia bada ere, eltxo horren kontrola funtsezkoa da.

ZIKLO BIOLOGIKOA



Non hazten den eltxo tigrea

Eltxo tigrea **ura duten ontzi txikietan** hazten da, ur hori astebetez baino gehiagoz ontzian geldirik egon denean.



Tiestoen platerak



Estolda-zuloak, estoldak



Enbaseak, ontziak

Nola lagundu eltxoei aurre egiten?

Prebentzioa da gakoa, eltxoa ugaltzea galaraziz.



Begiratu ez dela urik pilatu drainatze-eremuetan (estolda-zuloak eta estoldak), teilatuetakoa hodietan edo ureztatzeko ontzietan.



Erabiltzen ez direnean, putzuak eta igerilekuak olana (lona) batekin estali, baina zaindu olana horretan bertan ez dela urik pilatzen.



Ura kendu ontzietatik: tiestoek azpiko platerak, pitxerrak, pertzak, jostailuak, plastikozko igerilekuak, etab.



Bizpahiru egunetik behin garbitu etxeko animalien edateko ontziak.



Leihoetan, deposituetan, ontzietan eta abarretan eltxo-oihalak erabiltzeak eltxoa sartzeari eta arrautzak errutea galarazten ahal du.



Pneumatikoak



Bidoiak



Teilatuetakoa hodiak

LAGUNDU IEZAGUZU NON DABILEN JAKITEN

Eltxo tigre bat ikusten baduzu, geolokalizatu ezazu, atera argazki on bat eta igorri app honetara:
www.mosquitoalert.com




Ziztada saihesteko aholkuak



**Intsektu-uxagarriak erabili,
batez ere hanketan.**



**Gorputz-higiene ona izan,
izerdiak eta usain gogorrak
erakarri egiten baitituzte.**



**Erabili intsektuen aurkako
tresna elektrikoak.**

Herritarren lankidetzaz, tokiko erakundeekin eta Nafarroako Gobernuarekin batera, funtsezkoa da eltxo tigreak hedapena geldiarazten saiatzeko.

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**



Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra  **Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua**



LIFE NADAPTA